

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Valeriano Gonzalezek zombat etxe erre zituen mendian?
2. Urepele Kintoan zombat etxe izan ziren Espainiako ekarriak eta noiz?
3. Nun da KINTOA?

II

KINTOA 2

1) Valeriano Gonzalez, espainol jaun batek erre zaizkigun mendian lau etxola, eta hori deus arrazoinik gabe eta hitzik erran gabe. Hortarik hasi zen bere nausitasunaren erakusten.

2) Urepele Kintoan badire zortzi etxe. Espainiarekin antolamendu bat egin zelarik orai duela berrogoi-eta-hamazazpi urte —1856ean— mugak egin zirelarik, zortzi etxe horiek Espainiako ekarriak izan ziren. Etxe horiek badituzte bazterrak, onak eta handiak; pentze, alor, oihan, gaztandei, iratze toki, guziatarik ausarki. Dclako antolamendu hori egin-eta zortzi etxe horiek beren zergak Espainiari emaiten dituzte. Geroztik iduri luke Kintoko etxeko-jaunek ez zutela deus makurbiderik, eta iduri luke beren ontasunez gustuan gozaten ahal zirela. Badukek, to!

Valeriano Gonzalez heldu da; hor dabila gau eta egun zokoz zoko. Ontasunak neurtzen ditu, zendako ote? Doi-doia begien aitzineko hitz batzu erranez, gero ondotik zimiko handi baten egiteko. Eta huna zer duen egiten: uzten ditu Kintoko etxeko-jauner goza ditzaten lur apainduak bakarrik, beraz alorrak eta pentzeak. Bertzeak, gaztandei, oihan, denak kendu nahi daizkote, erranez 1856eko antolamenduaren arabera ez direla horiek heientzat.

3) Betidanik, Aldudar-Esnasuarrek eta Urepeldarrek —betidanik gero!— pikatzen zituzten eta etxerat ekartzen Kintoko iratzeak. Eta Valeriano Gonzalezek erraiten diote: «Ez, iratze horiek ez dire zuenak, ez hunki horiek; utz hor berean.» Pentsatzeko da, iratzerik gabe, laboraria ahul dela.

III

ADITZ IKASKUNTZA

- | | |
|--------------------|------------------|
| 31. Erre zaizkigun | 32 Iduri luke |
| 33 Badukek | 34 Goza ditzaten |
| 35 Nahi daizkote | |

31 IZAN. Régime Indirect. Indicatif imparfait. Pluriel.

Hek ziren = ils étaient.

- | | |
|--------------------------------|--------------------|
| Hek (eus) zitzaizkidan (à moi) | = ils m'étaient |
| - " zitzaizkigun (à vous) | = ils vous étaient |
| - " zitzaizkion (à lui) | = ils lui étaient |
| - " zitzaizkigun (à nous) | = ils nous étaient |
| - " zitzaizkizuen (à vous) | = ils vous étaient |
| - " zitzaizkien (à eux) | = ils leur étaient |

Gu ginen = nous étions

- | | |
|----------------------------------|--------------------|
| Gu (nous) gintzaizkigun (à vous) | = nous vous étions |
| - " - gintzaizkion (à lui) | = nous lui étions |
| - " - gintzaizkizuen (à vous) | = nous vous étions |
| - " - gintzaizkien (à eux) | = nous leur étions |

33 UKAN. Potentiel probable

C.D.S.

C.D.P

- | | |
|-------------------------------------|---------------------------------|
| Nik duket = je peux l'avoir | N. dituzket = je peux les avoir |
| Hik (homme) duket = tu peux l'avoir | H. dituzkek = tu peux les avoir |
| Hik (femme) duken = tu peux l'avoir | H. dituzken = tu peux les avoir |
| Zuk dukerzu = vous pouvez l'avoir | Z. dituzkezu = |
| lerek duke = il peut l'avoir | H. dituzke = |
| guk dukegu = nous pouvons l'avoir | G. dituzkegu = |
| Zuek dukerzue = vous pouvez l'avoir | Z. dituzkerzue = |
| Heiek dukete = ils peuvent l'avoir | H. dituzkete = etc. |

32. UKAN - Conditionnel Présent

C.D.S.

C.D.P

- | | |
|-------------------------------|----------------------------|
| Nik nuke = je l'aurais | N. nituzke = je les aurais |
| Hik luke = tu l'aurais | H. hituzke = |
| Zuk zinuke = vous l'auriez | Z. zinituzke = |
| Harek luke = il l'aurait | H. lituzke = |
| Guk ginuke = ns l'aurions | G. ginituzke = |
| Zuek zinukete = vs l'auriez | Z. zinituzkete = |
| Heiek lukete = ils l'auraient | H. lituzkete = etc. |

Dans le verbe UKAN (conj. forte) le potentiel à la signification du probable, ainsi baduke = il peut l'avoir signifie: il doit l'avoir, il l'a probablement